



## GIZA ESKUBIDEEI BURUZKO ARARTEKOAREN BILDUMA BERRIA

Juan San Martínen heriotzaren ondoren, erakundeak giza eskubideei buruzko liburu-bilduma berri bat hasi du, lehen Ararteko izan zenaren gorazarretan.

2005eko maiatzaren 30ean Juan San Martín, Euskal Autonomia Erkidegoko lehenengo Arartekoa (1989-1995) eta Europako Ombudsman Institututuko lehendakaria (1994-

1995) izandakoa, Hondarribian hil zen. Langile nekaezin, idazle eta poeta honek ardura handia erakutsi zuen arte, etnografia, argazkilaritza edo mendizaletasunagatik. Arartekoa izan zen

garaian, lan sozial eta kultural handia burutu zuen, erakundea abiarazteko beharrezkoak ziren baliabide pertsonal eta materialez hornitu zuen, eta laguntza handiena behar zuten gizarteko taldeei buruzko ezohizko txosten batzuk egitea sustatu zuen. Horrez gain, giza eskubideekiko errespetuzko kultura sortzen lagundu zuen, bekak deituz eta argitalpenen bilduma bat abiaraziz. Azaroaren 21ean Ararteko erakundeak omenaldia egin zion Juan San Martíni, Iñigo Lamarca Arartekoa, M<sup>a</sup> Paz Ibeas San Martínen alarguna eta Oier semea, eta Izaskun Bilbao Eusko Legebiltzarreko lehendakaria buru izan zituen ekitaldi batean. Politika eta kultura arloko hainbat pertsona ospetsu bertaratu ziren. Lamarcak eskultura bat eman zion San Martínen familiari, eta erakundeak lehenengo Arartekoa izandakoari giza eskubideei buruzko azterlanen bilduma bat eskainiko diola adierazi zuen.



(Iñigo Lamarca Juan San Martín agurtzen)

### ARARTEKO ERAKUNDEAREN JARDUERA KOPURUTAN

- 2005ean 4.065 kontsultari erantzun diegu, telefonoz edo gure hiru bulegoetako baten batera etorri zaizkigun pertsonari aurrez aurre.

- Zuzeneko arretarako hiru bulegoetara egin zaizkigun bisitak 2.419 izan dira, guztira, eta horietatik % 26,46 kexetan gauzatu dira.

- Ararteko erakundearen webgunearen (www.ararteko.net) bidez aurkezten diren erreklamazioen kopurua gero eta handiagoa da. Izan ere, kexen % 28,86 bide horren bitartez jaso ditugu.

- Ararteko erakundearen 1.459 erreklamazio jarri dira, guztira. % 10,42 kolektiboren baten izenean aurkeztu dira.

- Urtean ofiziozko 42 espediente abiarazi ditugu.

- Bideratutako kexen % 47,29 udalen kontra zuzendu dira, % 35,05 Eusko Jaurlaritzaren jardueraren kontra, eta % 12,62 foru administrazioen kontra.

- Arartekoaren esku-hartzea oso ontzat edo nahikoa ontzat jotzen dute galdera-sortari erantzun dioten gehienek (% 87,92).

- Aztertu ondoren irregulartasunen bat zegoela iritzi zaien erreklamazioetatik % 95,96tan eragindako administrazioak jarduera zuzendu du.

#### ARARTEKO ERAKUNDEAREN ESKU-HARTZEA ZENBAITERAINO IZAN DEN ERAGINKORRA

KONPONDU GABEKO IRREGULARTASUNA (gomendioa ez da onartu)

4,04 %



#### ERREKLAMATZAILEEK ARARTEKO ERAKUNDEAREN JARDUEZ EGINDAKO BALORAZIOA

OSO TXARRA ERANTZUNIK EZ

OSO ONA

2005



## DATU OROKORRAK

2005. urtean telefonoz zuzendu diren edo zuzeneko arretarako gure hiru bulegoetara etorri diren pertsonen 4.065 kontsultari jaramon egin diegu. Zuzeneko arretarako bulegoetan 2.419 izan ditugu, guztira; bisita horietatik 640 kexetan gauzatu dira, % 26,46, hain zuzen, eta horrek agerian uzten du zuzeneko arretarako bulegoetan egiten den aurretiazko lana, arrazoi batengatik edo beste batengatik Arartekoak ikertzerik izango ez duen erreklamazioak onartzen ez direlako.

2005ean Arartekoari 1.459 kexa aurkeztu zaizkio, guztira, batzuk hainbat sinaduraren babesaz, gainera. Kexen % 10,42 kolektiboek aurkeztu dituzte.

Internet herritarrek erreklamazioak aurkezteko baliatzen dituzten bideetako bat bihurtu da. Izan ere, kexen % 28,86 erakundearen webgunearen (www.ararteko.net) bidez jaso ditugu.

Gainera, urtean ofiziozko 42 espediente abiarazi ditugu. 2005ean bideratzen amaitu zirenei dagokienez, aztertutako norbanako zein kolektiboek kexen % 37,39an irregulartasunen bat zegoela iritzi zaio. Eragindako administrazioak kexa eragin duen jarduera aztertu ondoren, irregulartasunen

bat zegoela iritizitako erreklamazioak % 95,96an zuzendu ditu. Kasurik gehienetan (% 95,79) ez da gomendiorik egin behar izan horretarako.

Kexek zein arlorekin zerikusia daukaten kontuan hartzen badugu, 2005ean aurreko urtearen aldean erreklamazioen kopuruak zerbait aldatu direla ikusiko dugu. Hartara, Hirigintza eta Etxebizitza arloko kexak murriztu dira, batez ere iaz erreklamazio kopuru handia bideratu zelako Donostiako establezimendu desberdinetan egindako erreforma obretan irisgarritasun araudia ez betetzeagatik.


2005eko erreklamazio kopururik handiena Tokiko Administrazioa joan da, guztira bideratutako kexen % 47,29, zehazki. Eusko Jaurlaritzaren kontrako kexak % 35,05 izan dira eta Foru Administrazioaren jarduerari buruzkoak, ordea, % 12,62. Ohartarazi behar dugu espedienteetan sartutako administrazioak ikertu arren, horrek ez duela legea urratu dutenik esan nahi, beren jardueraren bat kexa-gai izan dela soilik baizik.

Bizkaiko udaletarako izan dira kexa guztien % 49,21; Gipuzkoakoetara % 29,45 joan dira, eta Arabako udaletara % 17,59.

Kexarik aurkeztu duten pertsonak nahi


badute eta izenik eman gabe betetzen duten galdera-sortak adierazten duenez, Arartekoaren esku-hartzea oso ontzat edo nahikoa ontzat jotzen da (erantzun dutenetatik % 87,92), baita arazoa konpondu ez zaienean edo beren kontra ebatzi denen artean ere. Gainera, ia % 93k administrazioaren batekin arazorik izatekotan, Arartekora jotzeko gomendatuko liokete jendeari.

ZUZENEAN BIDERATUTAKO KEXEN BANAKETA JARDUERA ALORREN ARABERA




1 Hirigintza eta Etxebizitza	8 Herrizaingoa
2 Herri Lanak eta Zerbitzuzak	9 Ingurumena
3 Hezuntza	10 Justizia
4 Funtzio publikoa	11 Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa
5 Osasuna	12 Kultura eta Elebitasuna
6 Gizarte Ongizatea	13 Lana eta Gizarte Segurantzza
7 Ogasuna	

ZUZENEAN BIDERATUTAKO KEXEN BANAKETA ERAGINDAKO ADMINISTrazioEN ARABERA




ARARTEKOAK JASOTAKO KEXA KOPURUAREN BILAKAERA (1989-2005)




1 545 kexak kexa berdin-berdinen maila bat osatzen dute.  
 2 1.143 kexak kexa berdin-berdinen 2 maila osatzen dituzte.  
 3 62 kexak kexa berdin-berdinen maila bat osatzen dute.  
 4 264 kexak kexa berdin-berdinen 2 maila osatzen dituzte.

## KEXAGILEAK ETA KEXAK AURKEZTEKO ERA


JASOTAKO KEXEN BANAKETA ERREKLAMAZIAILEEN ERAUGARRIEN ARABERA



JASOTAKO KEXEN BANAKETA ERABILITZAKO HIZKUNTZAREN ARABERA



JASOTAKO KEXEN BANAKETA AURKEZTEKO MODUAREN ARABERA



## JUAN SAN MARTÍN: LEHENENGO ARARTEKOA

Juan San Martín lehenengo Ararteko hautatu zuten Euskal Autonomia Erkidegoan 1989an, eta erakunde berri bat abiarazi zuen euskal erakunde sarean. "Arartekoa" Erakundea sortu eta arautzeko otsailaren 27ko 3/1985 Legea onartu zenetik lau urte baino gehiago behar izan ziren kargu horretaz jabetzeko, eta beharrezko 3/5 motako gehiengoa lortu ahal izateko parlamentu taldeek sinatutako akordioaren ondorioz, Juan San Martín hautatu zuten, 1989ko martxoaren 8an bere karguaz jabetu zela. Erakundea abiarazteko beharrezkoak ziren baliabide pertsonal eta materialez hornitu zuen, eta Ararteko erakundea bezalakoek behar duten oinarria eratu zuen, gaur egun hasierako lan garrantzitsu horri esker erabat finkatuta dagoena. Juan San Martín Arartekoa izan zen denboraldian (1989tik 1995era) herritarrek hainbat arlori buruzko ia 5.000 kexa aurkeztu zituzten Ararteko erakundearen aurrean: osasuna, hezkuntza, ingurumena, hirigintza eta etxebizitza, gizarte ongizatea, funtzio publikoa, kultura, herri lanak eta zerbitzuak... eta agertutako arazo askori irtenbidea eman zitzaizen.

Laguntza handiena behar zuten gizarteko taldeei eragiten zieten ezohizko txosten batzuk egin zituen:

1. Ziegak. Udalaren eta Ertzaintzaren atxiloketa-zentroak.
2. Ospitale psikiatrikoak. Ospitale psikiatrikoetako buru-gaixoen egoera.
3. Euskal Autonomia Erkidegoko adinekoen egoitzak.
4. Euskal Autonomia Erkidegoko adinekoentzako arreta ez-egoitzazkoa.

Juan San Martínek giza eskubideekiko errespetuzko kultura sortzen lagundu zuen, bekak deituz eta "Frantzisko Vitoria aita" izenburupean giza eskubideei buruzko argitalpenen bilduma abiaraziz. Ombudsmanen nazioko zein nazioarteko bilera eta hitzaldi ezberdinetan parte hartu zuen. 1994ko ekainaren 3an Europako Ombudsman Institutuaren Urteko Batzarrean erakunde horretako lehendakari hautatu zuten, eta kargu hori bete zuen Arartekoa izateari utzi arte.



(Juan San Martín lehen arartekoa)

## JUAN SAN MARTÍNI EGINDAKO OMENALDIA

Azaroaren 21ean Ararteko erakundeak omenaldia egin zion Juan San Martíni, Iñigo Lamarca Arartekoa, M<sup>a</sup> Paz Ibeas San Martínen alarguna eta Oier semea, eta Izaskun Bilbao Eusko Legebiltzarreko lehendakaria buru izan zituen ekitaldi batean. Politika eta kultura arloko hainbat pertsona ospetsu joan ziren ekitaldira, hala nola Iñaki Arriola Eibarko alkatea, Leire Ereño Gipuzkoako Batzar Nagusietako lehendakaria, Ramón Rabanera Arabako diputatu nagusia, Paulino Luesma gobernuaren ordezkaria, Miren Azkarate kultura sailburua eta Eusko Jaurlaritzaren bozeramailea, Alfonso Alonso Gasteizko alkatea, euskal legebiltzarkideak, Euskaltzaindiko José Luis Lizundia, Henrike Knörr eta Jean Haritschelhar, Eusko Ikaskuntzako José Manuel Castells, Euskalerriaren Adiskideen Elkarteko Fernando Salazar, eta Juan San Martínen herri-defendatzaile garaikide batzuk, autonomi erkidego ezberdinetatik etorri zirenak.

Omenaldia Eskoriatza-Eskibel jauregian gauzatu zen, eta Iñigo Lamarca brontzezko eskultura bat eman zion San Martínen familiari, M<sup>a</sup> Paz Ibeasek hunkituta hartu

zuen. Halaber, Lamarca adierazi zuen erakundeak giza eskubideei buruzko azterlanen bilduma bat eskainiko diola lehenengo Arartekoa izandakoari.



(M<sup>a</sup> Paz Ibeas eta Iñigo Lamarca)



## ETXEAN LAGUNTZA PEDAGOGIKOA EMATEKO PROGRAMA, JOKIN C. KASUAGATIK AUZIPERATUTA DAUDEN ADINGABEENTZAT

Jokin C. gaztearen heriotza dela-eta Gipuzkoako adingabeen fiskaltzak auziperatuko Hondarribiko Talaia institutuko ikasleen guraso-talde batek esku hartzeko eskatu zigun, beren ustez hezkuntza-administrazioa beren seme-alaben eskolatzeko normala eragozten ari zelako, eta, horren ondorioz, min moral eta psikologiko larria eragiten zielako. Pertsona horiek bazekiten Arartekoaren esku-hartzeak ez zuela inolako loturarik izan behar adingabeen fiskaltzak hasitako prozesu judizialarekin. Izan ere, kexa zela-eta gurasoekin egindako bileran,

esku hartzeko geneuzkan aukerak zehaztu ahal izan genituen. Hitz egindakoaren arabera, ikasleen eskolatzeko baldintzak ikertuko genituen, eta etorkizunean izango zuten hezkuntza-ibilbidearen balizko eraginak aztertuko genituen. Kexaren izapidea hasi genuenean, hezkuntza-arduradunek bilera bat egin nahi zutela jakinarazi ziguten. Bilera horri esker, gazte horien eskolatzeko baldintzak erabakitzerakoan hezkuntza-administrazioa zein inguruabar kontuan hartzen ari zen jakin genuen. Horrez gain, bilera horrek

erakutsi zuenez, administrazioako oso garrantzitsua da beren egoera berezira egokitzea, eskola-errendimendua ebaluatzeko orduan. Halaber, berriro jakin genuen Hezkuntza Saileko arduradunak beharrezkoa zen laguntza psikologiko osoa emateko prest zeudela. Hori guztia dela-eta, gure ondorioa izan zen hezkuntza-administrazioa modu egokian jokatzeko ari zela, epailearen lehen erabakiak jakin arte, artean ez baitzegoen erabakirik.

## HEZKUNTZA-PLANGINTZA: A EREDUKO HEZKUNTZA-ESKAITZA KENTZEA

Pertsona talde batek Arartekoarengana jo zuen, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak hartutako erabaki bat zalantzan jartzeko. Izan ere, Rivabellosako Unamunzaga LHIn bi eta hiru urteko umeentzat A ereduko hezkuntza-eskaintza kentzea erabaki du Sail horrek. Erreklamazioa egin zutenen iritziz, eskaintza hori guztiz beharrezkoa zen artean, inguruko familia askok jakinarazi zuten bezala.

Kexaren izapidea hasi eta gero, Hezkuntza Sailak gaiari buruzko erantzuna igorri zigun, eta hor Udalak gaiari lotuta hartutako erabaki bat aipatu zuen bereziki, B eta D hezkuntza-ereduak bultzatzeko asmoari buruzkoa, hain zuzen ere. Hala ere, udal akordio hori alde batera utzita, 2004-05 ikasturteko matrikulazio-datuak helarazi zizkiguten, era xehatuan, Eskolatzeko Batzordean egindako proposamena azaltzeko eta, azken batean,

Rivabellosako Unamunzaga LHiko hezkuntza-eskaintza berriro bideratzeko aurreikusi den plangintza justifikatzeko. Eskaintza hori B ereduko bakarrik izango da, hau da, inguruko familiek gehien eskatzen duten ereduko. Informazio osoa aztertuta, gure ondorioa izan zen erabakia aurreko ikasturteetako matrikula-datuaren garapenaren arabera hartu zela eta, beraz, erabakia ezin zela bidegabetzat hartu.



(Deiaren argazkia)

## LIBURUAK EUSKARAZ: BRAILLEZ IDATZITA DAUDEN ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK SAILKATZEA

Pertsona itsu batek erreklamazioa egin zuen, braillez idatzitako euskarazko liburuak eskuratzeko zailtasunari buruz. Zehazki, euskaraz argitaratutako liburuen kopurua txikia zela adierazi zuen, eta katalogorik ez zegoenez, hizkuntza horretan irakurtzeko zituen aukerak oraindik txikiagoak zirela. Kexa horretan alderdi bi aipatzen ziren: bata braillez idatzitako euskarazko testuen ekoizpenari lotuta dago, eta bestea testu horiek eskuratzeko zailtasunari. Alderdi horietako lehena gutxika-gutxika jorratu behar da, eta hainbat maila egon daitezke. Baina bigarrena, hau da, dauden funtsen katalogazioari buruzkoa, berehala jorratu behar dela uste dugu. Gaia irisgarritasunari lotuta dago eta, beraz, kexan aipatzen zen kontu hori Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluan azter zitekeen. Bestalde, era materialean, kexak bibliografia sailkatzearekin zerikusia du. Izan ere, liburutegietan braillez zeuden argitalpenak zein ziren jakiteko biderik ez egotea zen, hain zuzen, azaldu zituen arazoetako bat. Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluak Eusko Jaurlaritzako hainbat Saitetako ordezkariak ditu. Hala ere, gaia zuzenean jakinarazi genion Kultura Ondarearen Zuzendaritzari. Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluko buruak adierazi zigun gai hori batzorde iraunkorraren hurrengo

batzarreko gai-zerrendan sartuko zutela. Kultura Ondarearen Zuzendaritzarekin egin zen bilera horri dagokionez, pertsona itsuek euskarazko liburuak eskuratzeko dituzten arazoaren gaia jorratu zen, eta gutxika-gutxika egokitu beharra aipatu zen. Horretarako, gaur

egun dagoen funts-kopurua handitu behar da eta funts horiek sistematizatu behar dira, testuak eskuratzeko aukera emango duten katalogoen bitartez. Txostena bukatzeko orduan, espedientea ez zegoen amaituta oraindik.



## HAUTAKETA-PROBAK EZGAITASUNEN BAT DUTEN PERTSONENTZAT EGOKITZEA

Eibarko Udalak deialdi bat egin zuen gizarte-langile izateko lanpostuak betetzeko. Parte-hartzaile batek epaimahaiaren jarduera zalantzan jarri zuen, ikusmenean duen ezgaitasuna zela-eta lehiaketa-probak egiteko eskatu zituen egokitzapenen inguruan izan zuen jokabideagatik. Indarrean dagoen legeriaren arabera, interesdunak dira beharrezko egokitzapenak eskatu behar dituztenak beren ezgaitasun motaren eta mailaren arabera. Epaimahaiak, berriz, egokitzapen horiek beharrezkoak diren ala ez erabaki behar du. Aztertzen ari garen kasuan, badirudi lehen proba egiteko unea heldu zenean, epaimahaiak ez zuela prestatu interesdunak eskatutako egokitzapen bat bera ere, eta orduantxe erabaki

zuela azterketako orriak gehitzea, letraren tamaina eskatutakoa izan zedin. Hala ere, ez zuen onartu proba egiteko emandako denbora luzatzea, erreklamazioa aurkeztu zuenak ez zuelako aurkeztu irakurtzeko erritmo motelagoa izateari buruzko ziurtagiririk, eta horrelako proba batean denbora aldatzeak proba hutsaldu egin ahal zuelako. Ez gaude ados iritzi horrekin, hautaketa-prozesuko lehenengo proba zelako: gai komunei buruzko ariketa, hautatzeko erantzunak dituen galdera-sorta batez osatutakoa. Horrelako proben bidez, hautagaiek gutxieneko ezagutzak dituztela ziurtatu nahi da, eta denbora ez da funtsezko faktorea. Kexa aztertu ondoren, gure iritzia izan zen erreklamazioa aurkeztu zuenari ez zitzaioa

utzi berdintasunean parte hartzen, eskatu zuen denbora-egokitzapena arrazoirik gabe ukatu zitzaioelako. Epaimahaiak argudiorik gabe ezetsi zuen egokitzapen horren egokitasuna, eta gainera, proba egiteko erabili beharreko denbora ez zen funtsezkoa hautagaien gaitasuna balioesteko. Horregatik, interesdunak bidezko administrazio-errekurtsoak jartzeko asmoa zuela jakinarazi zigunez, udalari gomendatu genion egoera horretaz baliatzeko interesdunari sortu zitzaizkion kalteak konpontzeko. Hala ere, Eibarko Udalak ez zuen onartu Arartekoaren proposamena kontuan hartzea. Horren ondoren, bitartekariak izateko genituen aukerak amaitu zirenean, gure jarduera bukatutzat jo genuen.

## G I Z A R T E - Z E R B I T Z U A K E T A O S A S U N - Z E R B I T Z U A K K O O R D I N A T U T A E Z E G O T E A R E N O N D O R I O A K

Alkoholaren ohiko kontsumitzailea den Gasteizko etxerik gabeko pertsona batek adierazi zuen ezin zuela izena eman alkohola uzteko Osakidetzaren programa batean, etxerik eta elikadura egokirik ez zuelako. Udalaren kaleko hezitzaile bat berarekin jarri zen harremanetan, eta Osakidetzan alkoholaren kontsumoa uzteko tratamendu bat hasteko konbentzitu zuen, gizarteratzeko prozesu baten barruan. Horren ondorioz, pertsona hori Osakidetzaren Drogamendekotasun Zerbitzura joan zen, tratamendua hasteko prest. Hala ere, “etxerik gabekoa” zela jakin zuenean, zerbitzu horrek ez zion utzi programan parte hartzen. Horretarako emandako arrazoiak izan zen programak tratamendu farmakologikoa zuela eta, tratamendu horri jarraitzeko, oinarritzko premiak beteta egon behar zirela, hau da, janaria eta ostatua eduki behar zituela. Gure iritziz, kasu horretan alderdi sanitarioak eta sozialak bateratu behar ziren, horren bitartez, egoera hobetzeko egin diren ahaleginek arrakasta izateko nolabaiteko bermea izan dezaten. Pertsona bat errehabilitazio soziosanitarioko programa batean sartzen denean, gizarteratzen laguntzeko beste baliabide batzuek babesa eman beharko liokete. Horrez gain, uste dugu funtsezkoa dela gizarte-bazterkeriako prozesuez ahalik eta lasterren arduratzea, bazterkeriak luze iraun duenean askoz baliabide gehiago behar baitira horretarako, eta zailagoa baita gizarteratzea lortzea. Gainera, kaleko hezitzaileek egindako lan eraginkorra ez litzateke aprobetxatuko. Beraz, Gasteizko Udalari idazki bat igorri genion gaia azaltzeko eta horri buruz zuen iritzia eskatzeko. Horrez gain, gai hori konpontzeko eskain litzakeen bideei buruz galdetu zitzaion. Txosten hau amaitzeko orduan, artean ez genuen jaso horren erantzunik.

## IRISGARRITASUN-ARAZOAK DUELA GUTXI BERRITUTAKO ANBULATORIO BATEAN

Komunikabideen bitartez, Ararteko erakundeak jakin zuen Bilboko Areiltza Doktorearen kalean dagoen anbulatorio batean irisgarritasun-arazo bat zegoela. Dirudienez, anbulatorioak kanpoko sarbide bat zuen, eta sarbide horretan igogailu bat jarri zen. Hala ere, igogailu hori jarri bazen ere, ez zen lortu gurrpil-aulkian dabilzan pertsonak sarrera horretatik sartu ahal izatea, igogailura iristeko beharrezkoa baitzen maila txiki bat igotzea, maila hori ez zela kendu lanak egiterakoan. Maila horrek zaildu egiten zuen gurrpil-aulkian zebiltzan anbulatorioko erabiltzaileak osasun-

etxe horretara inoren laguntzarik gabe sartu ahal izatea. Arazoa ikusita, Osakidetzari eskatu genion igogailua jartzen amaitzeko eta maila hori laster kentzeko. Osakidetzak arazoa konponduko zuela jakinarazi zigun. Horretarako, maila kenduko zuen alaka bat egingo zen, eta egitura eta kolore ezberdineko seinaleztapen zerrenda jarriko zen, zoladuraren bestelakoa izan zedin. Azken neurri horrek helburu bikoitza zuen: sarbide hori erabiliko zutenei informazioa ematea eta horretaz ohartaraztea.



(El Correoren argazkia)

## EBAKUNTZA BATERAKO ITXARON BEHARREKO DENBORARI BURUZKO INFORMAZIOA

Pertsona batek erreklamazioa egin zuen Ararteko erakundearen, ebakuntza baterako itxaron behar zuen denboragatik (6 aste). Izan ere, medikuak ebakuntza atzerazina zela adierazi zuen itxaron-zerrendan sartzeko eskaera-orrian, eta itxaroten zeraman denbora ez zetorren bat horrekin. Kexan esaten zuen pazienteari arreta emateko zerbitzuak jakinarazi ziola zazpi hilabete lehenagoko ebakuntzak egiten ari zirela une horretan. Horri buruzko informazioa eskatu genuen, eta erantzunean adierazi zigutenez, 6 aste horiek beharrezkoak ziren aplikatzen zioten tratamendu analgesiko farmakologikoak efektua zuen egiaztatzeko, beharbada kasu horretan ebakuntza ez baitzen beharrezkoa izango. Ikuspegi kliniko batetik, datu horrek justifikatu egiten zuen ebakuntza

kirurgikorako itxarrotea. Pazienteari arreta emateko zerbitzuak orduan egiten ari ziren ebakuntzetan zazpi hilabeteko atzerapena zegoela adierazteari dagokionez, informazio hori eman zitzaion ala ez egiaztatzeko modurik ez zegoela esan ziguten; dena den, berak behar zuen ebakuntzarako itxaron beharreko denbora ez zen hori, askoz laburragoa baizik. Eta egia esan, horixe erakusten zuen igorri ziguten zerrendak. Alderdi horiek argituta, ospitaleko zuzendaritzak jakinarazi zigun pazientei ebakuntza egiteko batez besteko atzerapenari buruzko informazioa emateko aginduak eman zirela. Erreklamazioa egin zuen pertsonari gure jardueren berri eman ondoren, espedientea artxibatu genuen.



## PARTIKULAR BATEK HERRI BIDE BAT OKUPATZEA

Lemoizko herritar batek udalean salatu zuen beste herritar batek pibota batzuk jarri zituela herri titulartasuneko gurdibide bateko errodaduretan, eta, horren ondorioz, autoak ezin zirela bide horretatik pasatu. Udalak prozedura hasi zuen bidea ofizioz berreskuratzeke, eta entzunaldia eman zitzaion eragindako pertsonari. Horrek adierazi zuen esku-hartzea bere lursailan egin zela, eta ez zuela eraginik ibilgailuen zirkulazioan. Arazoa udaleko teknikariek egiaztatu zuten, eta, horren ondoren, gobernu-batzordeak erabaki zuen osoko bilkuran eztabaidatuko zela ea egokia zen espedientea bideratzen jarraitzea. Hala ere, denbora igaro zen, eta osoko bilkurak ez zuen gaiari buruzko erabakirik hartu; hortaz, herritar hori Arartekoarekin harremanetan jarri zen. Informazioa eskatu genuen, eta egin dituen jardueren kopia bat eman zigun udalak,

baita gobernu-batzordearen akordioaren ziurtagiria ere. Akordio horretan adierazten zen udalak “gaia erabakitzeke utziko zuela, gatazka lagunartean konpontzeko asmoz”. Emandako erantzuna ikusita, gomendio bat igorri behar izan genion udalari, bidea ofizioz berreskuratzeke hasi zen prozedura ebatz zezaten eskatzeko. Halaber, bideak hartzen zuen eremua lekuan bertan erabat zehaztuta ez zegoenez, bide hori era egokian zedarrizteko iradoki zen, eta lekuan bertan mugatzeko, gero Ondasun Higiezinaren Inbentarioan erregistratu ahal izateko. Lemoizko Udalak Arartekoari adierazi zion osoko bilkurak bidea ofizioz berreskuratzea erabaki zuela, eta era subsidiarioan betearazi zela pibotak kentzeko agindua, jarri zituenak ez zituelako kendu epearen barruan.



## KEA ETA GASAK ISURTZE A, OSTALARITZAKO ESTABLEZIMENDU BATEKO SUKALDEAN AURKITU DIREN AKATSEN ONDORIOZ

Bilboko hainbat bizilagunek esku hartzeko eskatu zioten Arartekoari, ke eta usainen etengabeko isurpena jasaten zutelako beren etxebizitzetan. Taberna bateko sukaldeak txarto funtzionatzen zuelako gertatzen zen hori, taberna hori beren eraikinaren etxabeetan zegoela. Hasieran salaketa jarri zuten Udalean, eta udal arduradunek taberna ikuskatu zuten. Horren ondoren, jardueraren titularrari eskatu zioten neurri zuzentzaile batzuk hartzeko, esate baterako, kanpai erauzgailua aldatzea, kearen irteera fatxadaraino kanalizatzea eta kearen irteerako haizagailua aldatzea. Hala ere, erreklamazioa aurkeztu zutenek adierazitakoaren arabera, neurri horiek hartu zirela ematen zuen arren, ez ziren arindu etxebizitzetan jasaten zituzten eragozpenak. Salaketa gehiago aurkeztu zituzten Bilboko Udalean, baina erantzunik jasotzen ez zutenek, bi enpresa pribatari kontsultatzea erabaki zuten, arazoari behin betiko irtenbidea aurkitzeko asmoz. Bi profesionalak adierazi zuten irregulartasun batzuk zeudela, eta herritarrek berriro jo zuten udalera. Hala ere, egoera ez zen konpontzen. Kexaren sustatzaileek jarduera asko egin zituzten, emaitza onik lortu gabe eta, hori kontuan hartuta, Arartekoak informazioa eskatu zion Bilboko Udalari. Udalaren zerbitzu teknikoei eskatu zitzaion ikuskapen bisita egin zezaten, kexaren sustatzaileek egin zituzten alegazioak egiaztatzeke, eta, horrez gain, eskuratutako emaitzen arabera, egokitzat jotzen zuten irtenbidea erabakitzeke. Bilboko Udalak udal txostena igorri zigun, eta txosten horretan adierazten denek, kexaren sustatzaileek aipatutako akatsak egiaztatu zirenean, establezimenduko sukaldeak erabiltzea debekatzea erabaki zen. Gainera, indarrean dagoen ingurumen-arauegia hausteagatik zehapen-espediente bat hasi zuela jakinarazi zigun. Udalaren erantzuna jaso ondoren, gure esku-hartzea eta espedientea amaitu genituen.

## ETXEBIZITZA SOZIAL BATEN SALEROSKETAREN ESKRITURAK EGITEKO EZINTASUNA, BIZIKIDETZA-LOTURA APURTU ONDOREN

Pertsona batek Arartekoarengana jo zuen, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak bere eskaera bati ezetz esan ziolako. Hain zuzen ere, baimena eskatu zuen VISESAk egindako zozketaren ondoren bikotekide ohiarekin hartutako babes ofizialeko etxebizitzaren salerosketa-kontratuan titular bakar gisa eskriturak egiteko. VISESAk sustatutako etxebizitza sozial bat esleitu zitzaion bikoteari –bizikidetz-unitate gisa–. Sailak behar bezala ikus-onetsitako salerosketa-kontratu pribatua izenpetu ostean, bikotea banandu egin zen. Hortaz, erreklamazioa egin duenak bikotekide ohiarekin akordio bat egin zuen, eta etxebizitza sozialaren titulartasuna izaten jarraitzeko aukera proposatu zuen, baita etxebizitza hori bere izenean esleu zedin ere, jabe bakarra izateko. Administrazioak ez zuen eskaera

hori onartu, bere iritziz, etxebizitza esleitzeko baldintzetako bat kontratu pribatuan agertzen zen titulartasun berarekin jarraitzea zelako. Arartekoak Etxebizitza Sailera jo zuen, pentsatu zuelako egoera horren ondorioz bikote zibilei edo izateko bikoteei ematen zaien tratua bestelakoa emango zitzaieela agian bizikidetz-unitateei. Administrazioak eskumena du babes ofizialeko etxebizitzak eskuratzeko lehenetsunak ezartzeko, eta etxebizitza horiek zein pertsonarentzako diren ezartzeko. Hala ere, gure ustez, arrazoi objektiboak egon behar dira talde bati (bizikidetz-unitateak) tratu ezberdina emateko, beste bikoteen aldean. Azken batean, bizikidetz-unitatearen kategoria etxebizitzaren arautegiak berak sortu zuen, eta etxebizitza eskatzaileen erregistroan kategoria horretan

borondatez izena ematea ahalbidetzen du. Gainera, bikotea esleipena egin baino lehen banantzen bada, eskatzaileen erregistroari aldaketa jakinaraz dakioko. Halaber, etxebizitzaren eskriturak egin eta gero bizikidetz-unitatea apurtzen bada, etxebizitza esleitzeko erregimena ezkonduko bikotea edo izateko bikotea banantzen denean egiten denaren antzekoa izango litzateke. Erdiko tartean apurtzen bada, berriz, paradoxa bat dago: bikote batzuei sailak ez die titulartasuna aldatzeko baimena ematen, eta beste loturei bai. Aipatutako inguruabar horiek guztiak ikusita, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak bere jarrera berriro hausnartzea onartu du, eta baimena emango du kide bakar batek salerosketa-kontratuaren eskriturak bere izenean egin ahal izateko, bizikidetz-unitatea apurtu ostean.

## ANIMALIEN AISIALDIRAKO EREMUAK PRESTATzea

Bilboko parkeak erabiltzen dituzten txakur-jabeen talde batek iritzi batzuk igorri zizkigun, animaliak edukitzearen gaineko udal ordenantzaren aplikazioari buruz. Zehazki, animaliak uhalarekin lotuta edukitzea nahitaezkoa ez den aisialdirako eremurik ez zegoela adierazi zuten. Halaber, garraio publikoa etxeko animaliekin era mugatuan erabiltzeko aukera proposatu zuten. Bilboko Udalak jakinarazi zigun ezin zirela prestatu eremu horiek, parkeak garbitzeak kostu ekonomiko handia ekarriko lukeelako, zaintzeko arazoak sortuko lituzkeelako eta ez litzatekeelako inpartziala izango eremu

horretatik hurbil bizi diren erabiltzaileekin. Udal ordenantzan animaliei eta animalien jabeen ematen zaien tratuari dagokionez, eta aurreikusitako isunen proportzionaltasunari eta garraio publikoa erabiltzeko ezintasunari buruz, udalak uste du ordenantza bat datorrela txakur espezieko animaliak edukitzea arautzen duen dekretuarekin. Udalak emandako erantzunaren ostean, hausnarketa batzuk egin genituen animaliak edukitzeko arautegiari buruz eta talde horrek egindako eskariari buruz. Azkenean, alderdi guztien interesen alde egiteko asmoz, uste dugu Bilboko Udalak konpainiako animalietarako behar beste eremu

prestatu beharko lituzkeela. Leku horiek era egokian mugatuta egon behar dira, barruan animalien eta pertsonen segurtasuna bermatzeko, eta kanpoan animaliak edukitzeari buruzko arautegia bete dadila eskatu ahal izateko. Eremu horiek hiribilduko parke nagusietan egon beharko lirateke, behintzat, eta horiek kudeatzeko, animaliak defendatzeko eta babesteko taldeek parte hartzeko bideak ezarri beharko lirateke. Iradokizun horri erantzunez, Udalak berriro adierazi du aurrekontuaren aldetik zailtasunak daudela erkidegoko eta tokiko arautegian aurreikusitako animalien aisialdirako eremuak sortzeko.

## EAEko KARTZELETAKO EGOERA

Arartekoak aspalditik eskaintzen dio arreta berezia askatasunik gabe dauden pertsonen kolektiboari. 2005ean Langraiz Okako kartzelan kausa ez naturalengatik gertatutako heriotzen kopuru izugarriak espetxeratuaren egoerari neurri handiagoan hurbiltzea eragin du, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru espetxetara bisitak eginez eta zuzendariekin, eta ahal izan den neurrian, preso batzuekin bilerak izanez. Arartekoak uste du giza eskubideekin errespetuzkoa den zigor-sistema batean askatasuna kentzeko zigorra krimen larrienak zigortzeko baino ez dela erabili behar, eta presoan banakako trataerari dagokionean, espetxe-legedia betetzeko ahalegina egin behar

dela. Preso bakoitzaren ezaugarri, beharrian eta bilakaerari arreta eskaintzea beharrezko baldintza da, deliturik egin gabe berriro gizarteratzeko gaitasuna izan dezaten. Espetxeratuak berriro gizarteratzeko helburu horrek baldintza material batzuk ez ezik, giza baliabide egoki batzuk ere behar ditu, trataerari lehenetsuna eman behar zaiola zainketa hutsaren eta barneko ordenaren aurretik. Izan ere, alde askori eragin behar zaio: osasunaren babesa, gizarte-laguntza eraginkorra, lan- eta prestakuntza-jardueren gehikuntza, komunikazioak erraztea, etab. Ardura nagusia administrazio penitentziarioarena da arlo guztietan, baina askatasuna kentzeko zigorra

berriro gizarteratzeko baliabidea izan beharrak botere publiko guztiei eragiten die. Uste dugu EAEko Administrazioak ahaleginak egin behar dituela berari baino ez dagozkion zerbitzuetan antzemandako hutsuneak konpontzeko eta espetxean sartzea eragotzi edo handik irteera errazten duten baliabideak eratzeko. Delituen prebentzioari eragiten dioten gizarte-politikez, buru-gaixotasuna duten pertsonentzako zentro espezifikoez, erregimen irekiko unitateez, toxikomanien tratamendu eta errehabilitaziorako zentroz eta abarrez ari gara. Laburbilduz, euskal gizarte osoak ardura hartu, eta bere eskubideak gauzatzeko zailtasun bereziak dituen kolektibo horren egoera hobetzen lagundu behar du.



## ATZERRITARREN EGOERA JURIDIKOA NORMALIZATZEKO PROZESUAN UDALEK ERROLDA-ZIURTAGIRIAK EGITEARI BURUZKO ZENBAIT HAUSNARKETA

Atzerritarren egoera juridikoa normalizatzeko prozesua dela-eta, erakunde batzuek adierazi ziguten kezkatuta zeudela, prozesu horretan eskatzen diren baldintzak betetzeko moduagatik eta, zehatzago, errollda-ziurtagiriaren eskakizunagatik. Beharrezkoa da jarraituko den prozesua nahiko bermatzailea izatea, pertsona horientzat hil edo biziko garrantzia duelako. Horren ondorioz, Arartekoak gomendio orokor baten bitartez zenbait irizpide proposatu zizkien EAEko

udalei, arauen aplikazioa malgutzeko, interes publikoa eta eragindako pertsonen eskubideak uztartuta. Zehazki, Arartekoak hauxe gomendatu zuen: 2004ko abuztuaren 8a baino lehenago pertsona bat udalerrian zegoela egiaztatzen zuen edozein ziurtagiriarekin errollda-ziurtagiria eskatzeko aukerari buruzko informazioa ematea, eskaera-erduetan beste agiri batzuk aurkezteko aukera sartzea, apirilaren 14ko ebazpenean berariaz aipatzen direnez gain, eta ukapenak idatziz adieraztea.



(Deiaren argazkia)

## HERRITARREK TOKI EREMUAN INFORMAZIOA JASOTZEA ETA PARTE HARTZEA

Herritarrek gero eta maizago eskatzen dute informazioa eskuratzeko, eta horregatik, herri administrazioen eginkizunen gardentasun handiagoa eskatzen dute, informazio hori argia, garrantzitsua eta eskuratzeko erraza izan dadin. Uste dugu toki administrazioek informazio osoko zerbitzu bat diseinatu eta ezartzen aurrera egin behar dutela, erakunde osorako gidaria den politika koherentea izanda eta horretarako eskura dituzten tresna guztiak erabilia. Politika horrek informaziorako eskubidea eraginkorra izan eta herritarren arrazoizko eskaerari erantzuteko bidea eman behar du. Hori dela-eta, hartuta, uste dugu udalek beren erakundeetako informazio politikari buruzko gogoeta sakona egin, eta horren ondoren, informazio zerbitzua osorik arautu beharko luketela, hurrengo irizpideetan oinarrituta:

- Udal jarduera inspiratzen duten printzipioak eta balioak, eta informaziorako eskubidea bermatzen duten antolaketa gidalerroak eranstea, herritarrentzako zerbitzuaren benetako izaera duen administrazio gardenagoa eta eraginkorragoa lortzeko testuinguruaren barnean.
- Lege gutxienekoetan ez ezik, udalak berak bultzatu nahi dituen edukietan ere sakontzea, herritarren beharrezkoetara bideratutako informazioaren hobekuntza azpimarratuta.
- Informazioa interesdun guztiei helarazteko beharrezkoak diren baliabideak ezartzea, zailtasun gehien dituzten talde sozialetara heltzeko estrategiak bereziki aipatuta.

EUROPAKO ERKIDEGOKOAK EZ DIREN ATZERRITARREN ERROLDA-ERREGISTROEN INSKRIPZIOA ETA IRAUNGIPENA ADOSTEKO UDALEN PROZEDURARI BURUZKO HAUSNARKETA, BAITA BESTE HERRI ADMINISTRAZIO BATZUEI DATUAK LAGATZEKO PROZEDURARI BURUZKOA ERE.

Arartekoak gomendio orokor bat igorri zien EAEko udalei, Europako erkidegokoak ez diren atzerritarren errollda-erregistroen inskripzioa eta iraungipena adosteko prozedurari buruz, baita beste administrazio publiko batzuei datuak lagatzeko prozedurari buruz ere, pertsona horien eskubideak betetzen direla bermatzeko. Udalerrietan bizi diren pertsona guztiak eroldan sartuz gero, eskubideak erabili ahal izango dituzte, eta gizarteratzen lagunduko zaie. Gainera, udal administrazioak errazago antola ditzake baliabideak, eta arautegian ulertzen denez, Espainian bizi diren pertsona guztiek duten betebeharra omen da. Atzerritarrek inskripzioa eskatzen dutenean, bermatu behar da jarraitutako prozedurek beren eskubideak errespetatuko dituztela; nolahi ere, gure udalerrian bizi izan arren, eroldan inskribatuta ez dagoen pertsonarik ez dagoela bermatu behar da. 2005eko abenduaren 21etik aurrera, udalek errollda iraungita dagoela adieraz dezakete, eta horren ondorioz, duela bi urte baino gehiago inskribatu ziren eta Europako erkidegokoak ez diren atzerritarrek, behin betiko egoitza-baimenik ez dutenak, kanpoan gera daitezke, erregistroa ez badute berritu. Horregatik egin zen gomendioa. Hori dela-eta, zuhurrak izateko irizpide batzuk ezarri ditu gomendio horrek, eta, Arartekoaren ustez, Europako erkidegokoak ez diren atzerritarren eskubideak bermatzen lagunduko die udalei.



## ERAIKUNTZA IRAUNKORRA. ERAIKINEN ENERGIA-ERAGINKORTASUN HANDIAGORANTZ

Ararteko erakundeak gomendio batzuk proposatu dizkie EAEko herri administrazioei, herri agintariak eraikuntza iraunkorrerako egin duten bidea bultzatzen laguntzeko asmoz. Alde horretatik, ondo egongo litzateke herri agintariak jarduteko programa argi bat idaztea, eraikinak egiteko eta berritzeko benetako eskakizunak jasoko litzukeena. Eusko Jaurlaritzak energia-eraginkortasuneko ziurtagiria arautu beharko luke; arau horretan ziurtagiria lortzeko betekizunak adierazi beharko litzuzke, eta ezarri beharko luke zein erakundek duen baimena emateko eskumena. Horrez gain, ur bero sanitarioa ekoizteko eguzki-panelen instalazioei eta instalazio fotovoltaiakoei

buruzko arau teknikoak ezarri beharko litzuzke. Babes ofizialeko etxebizitzaren diseinuari buruzko ordenantzek berariaz hartu beharko lukete kontuan beharrezkoa dela energia-eraginkortasuneko eta arkitektura bioklimatikoko irizpideetara egokitzea eta irizpide horiek betetzea (ordenantza horiek Etxebizitza Sailak onartzen ditu), aurreko arautegian aurreikusitako irizpideak, alegia. Gainera, administrazioek eraikuntza iraunkorreko irizpideak jaso beharko litzuzkete eraikuntza publikoetarako lanak kontratatatzeko agiri orokorretan. Bestalde, udalek diseinu eta eraikuntza bioklimatikoko irizpideak kontuan hartu eta gehitu beharko litzuzkete hirigintza plangintzaren barnean. Horrez

gain, udalek ordenantza baten bitartez modu espezifikoan arautu beharko lukete eguzki-energia biltzeko sistemak jartzeko betebeharra, udalerriko eraikin eta eraikuntzetan ur bero sanitarioa ekoizteko.



## EREMU SOZIALEAN LAN EGITEN DUTEN ELKARTEETARAKO ERAKUNDE LAGUNTZAKO BIDEAK ETA PROZEDURAK HOBETU BEHARRA

Eremu sozialean lan egiten duten elkarteekin ditugun bileretan, elkarte horiek maiz agertu dituzte herri administrazioen diru-laguntzekin dituzten arazoak -ez dira kontu berriak-. Elkarte horiek bestela egongo ez liratekeen edo nahikoak izango ez liratekeen baliabideak eta zerbitzuak kudeatzen dituzte, erakunde erantzukizun argia duten arreta eremuak betez eta administrazioen gabezia batzuk ordeztuz. Arazo ohikoak honakoak dira: atzerapenak laguntzen deialdietan eta horien ebazpenean, atzerapena laguntzak jasotzeko orduan, ziurgabetasuna urte batetik bestera, laguntzen jarraipenari buruz edo

komunikatzeko zailtasunak deialdien arduradunekin. Beharrezkoa bada ere, ez dugu eztabaidatuko zein zerbitzu hartu behar duten zuzenean beren gain administrazioek edo beste agente sozial batzuek, "elkartasun-elkarteen" -gizarte zerbitzu eta arretan erakunde arduradunak edo enaileak diren aldetik- eta administrazioen arteko lankidetzara hobetu ahal izateko. Dena den, hurrengo gomendioak egin ditugu:

- Arreta sozialaren arloko eskumenen gaur egungo banaketa kontuan hartuta, beharrezkoa da alde bakoitzari eragiten dioten erantzukizunak argiago zehaztea, bereziki partaidetza motei eta elkarteek sustatutako gizarte-ekimenei egoki

dakizkiekeen laguntzei dagokienean. Mugatzeko eginkizun hori oso presazkoa eta beharrezkoa da zenbait eremutan, esate baterako eremu soziosanitarioaren barnean sartuta daudenetan.

- Erakundeek partaidetzako mekanismo egonkorak ezarri behar dituzte. Mekanismo horiek gizarte-ekintza koordinatuagoa ekarri beharko dute beraiekin.

- Lankidetzara-bideak ezartzeko aukera hausnartu beharko litzateke urteko aurrekontuak egiteko izapideetan. Bide horiek aurrekontuko urtearen denbora esparru murrizta baino luzeagoak izan behar dira, eta segurtasun handiagoa eskainiko dute.

- Izapidetze prozesuak berrikusiko dira guztien artean.

## GURE AUTONOMIA ERKIDEGOAN TXAKUR GIDARIEN EDO LAGUNTZAKO TXAKURREN KONTZEPTUA BERRESKURATU BEHARRA

Ararteko erakundearen ardura sortu izan du beti ezgaitasunen bat duten pertsonen beren eskubideak erabiltzeko dituzten zailtasunak. Laguntzako Txakurren Espainiako Elkarteak (AEPa) txakur gidariei buruzko azaroaren 21eko 17/1997 Legea aldatu beharra azaldu zigun. Arau horrek txakur gidari batekin honako lekuetara sartzeko eskubidea bermatzen die ikusmen-ezgaitasunen bat duten pertsonen: Euskal Autonomia Erkidegoko leku, zerbitzu eta garraio publikoetara edo erabilera publikoa dutenetara. Beraz, txakur gidarien edo laguntzako txakurren kontzeptua berreskuratzen du, eta kontzeptu hori zabaltzen du, ezgaitasunen bat duten pertsonen ere erabil dezaten. Erabiltzailearen premien eta jaso duten heziketaren arabera, laguntzako txakurrek hainbat lan egin ditzakete, esate baterako, gauzak

lurretik jaso, gorpil-aulkiei tira egin, argiak piztu eta itzali, larrialdiko dei bat egin, abisatzeko zaunka egin, etab. Lan horiei esker, ezgaitasunen bat duten pertsonak errazago baliatu daitezke inoren laguntzarik gabe, beren mugak eta inguruko oztipoak gainditzeko laguntza dutela. Hori dela-eta, gure iritziz, justifikatuta dago gaur egungo esparru arau-emailea gainditu beharra, eta arau berria onartzeko eskatzen dugu. Arau horrek beren ezgaitasunaren ondorioz txakur batekin joan nahi duten pertsonen onartu eta bermatu beharko die erabilera publikoko edozein lekutara, establezimendutara edo garraiotara txakurrarekin joan, han ibili edo egoteko eskubidea, Euskal Autonomia Erkidegoaren barnean, lekua titulartasun publikokoa edo pribatukoa den kontuan hartu gabe. Gainera, beharrezkotzat jotzen dugu informatzeko

eta hezteko kanpainak bultzatzea eta egitea, ezgaitasunen bat duten pertsonen eskubide hori erabiltzea inolaz ere ez zailtzeko. Horren bitartez, benetako gizarteratze eraginkorra bermatuko da.



(AEParen argazkia)



## BAKARRIK DAUDEN ADIN TXIKIKO ATZERRITARREN EGOERA EAEn

Txosten hau adin txikiko atzerritarrek gure Autonomia Erkidegoan –eta bereziki lurralde bakoitzean eta harrera-zentro edo harrera-etxe bakoitzean- duten egoera sakon aztertzen saiatu da. Hori egiteko, 1998tik metatutako informazioaz baliatu gara, urte horretan Arartekoak gaiari buruzko jarraipen sistematikoa abiarazi zuen eta, nahiz eta eskaintako datuak 2004ari dagozkion, gehien bat. Azken urteotan arreta jaso duten eta bakarrik dauden 2.118 adin txikiko atzerritarretatik, gure babes-erakundeetan denboraldi bat

eman duten ume gehienek denboraldi hori aprobetxatu dute beren hizkuntz gaitasuna hobetu, lanbide-prestakuntza lortu eta lan egiten hasteko, batez ere gizarteratzeko aukera txikiak eskaini zaizkienean. Izan ere, adin txikiko askok 18 urte bete eta beren kabuz bizi dira gure artean. Adin txikiko horiei eskaintzen zaien erakunde-erantzunari buruz egiten dugun balorazio orokorrean ondoko arazoak azpimarratzen ditugu:

- Adin txikiko horiei arreta eskaini eta babesteko ez dago irizpide komunik, ezta erakunde desberdinen arteko gutxieneko koordinaziorik ere.

- Adin txikiko horiei zuzendutako egoitzazko baliabideen mugak eta baldintzak, batez ere plaza erabilgarriei dagokienean. Horrek harrera-zentroak maiz gainezkatuta egotea dakar.

- Baliabideen kudeaketari eta horietan lan egiten duten profesionalen lan-egoerari (ratioak, prestakuntza, esperientzia, bajak, lan-baldintzak, etab.) lotutako gaiak.

- Horien integrazioa erraztuko luketen prozeduretan ematen diren atzerapenak eta zailtasunak, batez ere egoitza- eta lan-baimenak bideratzeko orduan.

- Zailtasunak eskolatzean eta adin txikiko horien hizkuntza-beharrizan eta lanbide-prestakuntzari emandako hezkuntza-erantzunean.

- 18 urte betetzean emantzipatzeko aukerei dagokienez dauden mugak, batez ere ostatu eta lanari dagokienean.

- Adin txikiko atzerritar arau-hausleen hazkundera, internamendu-zentroetan.

- Gure artean inongo erakundetik arretarik jasotzen ez duten adin txikiko atzerritar babesgabeak egoteko aukera.

- Gabeziak osasun-zerbitzuetan eta osasunerako eskubidea bermatzerakoan, batez ere droga-kontsumo problematiko edo buru-gaixotasunen aurrean.

- Zenbaitetan adin txikiko multzo horri buruz igortzen edo indartzen den irudi soziala, talde homogeneo eta bereziki liskartia izango balitz bezala.




(Izaskun Bilbao Eusko Legebiltzarreko lehendakariarekin)



Txostenean erakunde ezberdinei zuzendutako 36 gomendio egiten dira: gehienak babes arloan eskudunak diren hiru foru aldundiei zuzendu zaizkie, baina beste batzuk Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailari, Osasun Sailari, Justizia Sailari edo Herrizaingo Sailari eta udal batzuei egin zaizkie (adibidez, adin txikiko horiek errolatzeari edo herritarren sentsibilizazioari buruzkoak). Lehenengo bost gomendioek erakundeen arteko planifikazioa eta koordinazioa hobetu nahi dituzte. Zazpi nahikoak ez diren egoitzazko balibideen harrera-ahalmena hobetu, balibideak dibertsifikatu edo zentroen baldintzak eta funtzionamendua hobetzera zuzenduta daude. Gomendioen multzo handi batek adin txikiko enegoera administratiboa erregulatzeko beharrezkoak diren izapideak

arindu beharra agertzen du: heltzeko uneko hezur-probak, errolatzea, tutoretzaren ardura, egoitza- eta lan-baimenak... Hezkuntza Sailari zuzendutakoak eskolatzeko edo adin txikiko horientzako hezkuntza-arretari buruzkoak dira, eta Osasun Sailari zuzendutakoak, aldiz, osasun-arreta hobetzeari buruzkoak (batez ere buru-osasuneko arazo eta droga-kontsumo problematikoen aurrean). Emantzipatzeko aukerei buruzko bi gomendio daude, eta beste bi, babes-zerbitzuen eta gazte-justiziaren arteko lankidetzari buruzkoak, adin txikiko arau-hausleen kasuan. Babesgabetasun egoerak (hala nola, kalean bizi diren adin txikikoak edo adin txikikoak erabiltzen dituzten prostituzio-sareak) ikertu, eta hala denean, horiei aurre egin beharra ere azaltzen da, baita poliziak adin txikiko atzerritarrekin



izandako jokaera zaindu beharra ere. Amaitzeko, txostenean informazioaren tratamenduari eta beharrezko sentsibilizazio sozialari buruzko gomendioak egin dira.



(Deiaren argazkia)

## PERTSONA NAGUSIEI EMANDAKO ARRETA EAEn: ETXEKO LAGUNTZA, EGUNEKO ZENTROAK ETA EGOITZA-ZENTROAK

Txosten honen helburua pertsona nagusientzako zuzeneko arretako sistemaren EAeko zerbitzu nagusiak aztertzea da, sistemaren alde onak aztertu, bere gabeziak antzeman eta etorkizunerako jarraibideak proposatzeko asmoz. Euskal gizartearen zahartze-tasa nabarmen igo da. 1991n % 12,4an zegoen, eta 2001ean, berriz, % 17an; 2010erako % 20,5ekoa izatea espero da. 90eko hamarkadan gizarte-zerbitzu ezberdinen arreta jaso zuten pertsona nagusien kopurua % 87 igo zen, eta estaldura-tasa % 5,55etik % 7,68ra igo da. Aldi horretan bertan, egoitza-

zentroak 120 izatetik 305 izatera pasatu dira, horrek % 154 inguruko gehikuntza dakarrela. 2001ean zeuden 305 egoitzetatik 96 publikoak eta 209 pribatuak ziren. Pertsona nagusientzako egoitza-plazen kopurua 7.448tik 12.125ra pasatu da EAE osoan, eta horietatik erdia baino pixka bat gehiago pribatuak dira. Bestalde, laguntzarako eguneko zentroak egoitza-zentroen ordezeko arreta-formula dira: 90eko hamarkadaren hasieran baliabide hasiberria zen, baina gaur egun guztiz ezarrita daude. 1991n eguneko 11 zentro zeuden bakarrik Euskal Autonomia

Erkidego osoan; 2001ean, berriz, 76. Gehienak publikoak dira, eguneko zentro pribatuak abiarazten hasi diren arren. 1994tik (urte horretan Ararteko erakundearen aurreko txostena egin zen) 2001era arte, zerbitzu horiek nabarmen igo dira, 8.219 erabiltzaile izatetik 13.404 izatera pasatu direla. Hala ere, estaldura hori oraindik ez da nahikoa, nahiz eta Europako herrialdeetako batezbestekoaren azpi-azpitik dagoen Espainiako batezbestekoa baino pixka bat handiagoa den.



(El Correoren argazkia)

Txostenak 50 gomendio ditu, egoeraren baloraziotik aurrera egin direnak. Horien artean arautegi arloko batzuk azpimarratu behar dira:

- Eratuz joan den arautegi-esparruan lortutako aurrerapenak oinarritzko gizarte zerbitzuak eta etxeke laguntza zerbitzua autonomia mailan erregulatuz osatu behar dira.

- Lurraldeen artean dauden desoreka garrantzitsuen arintzea eta pixkanakako desagerpena, eta adinekoentzako arreta egokienaren prestazioa helburu hartzen dituen eztabaida zabaldu behar da.

- Gizarte zerbitzuetako erabiltzaileen eta langileen eskubideen eta betebeharren Kartan ezarritako eskubideak gure balio-sistemara erantsi behar dira.

- Ezinbestekoa da zerbitzuak eskuratzeko irizpide komunak ezartzea, EAeko lurraldeen artean dauden desorekak murrizteko asmoz.

- Laguntza behar duten pertsonen emandako zerbitzuen finantzazioari dagokionez, foru aldundien eta udalen arteko gatazkak konpondu behar dira.

- Erabiltzaileen diru-ekarpenak kalkulatzeko irizpide homogeneoak eta ordainketa-bermeko sistema bakarra ezarri behar dira EAE osorako.



## ARGITALPENAK




■ *Eusko Legebiltzarrarentzako Txostena*, Ararteko erakundeak aurreko urtean burututako jarduera biltzen duena.

■ *Pertsona nagusiei emandako arreta EAEn: etxeko laguntza, eguneko zentroak eta egoitza-zentroak* ezohizko txostena.

■ *Bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren egoera EAEn* ezohizko txostena.

■ *Haurren Legea* CD-ROMa, erakusketa ibiltaria antolatzeko aukera eman zigun Save the Children erakundearen argazki-katalogoa biltzen duena, baita EAeko ikastetxe guztietara bidalitako beste material batzuk ere.

■ Giza Eskubideen Nazioarteko Egunean, abenduaren 10ean, alegia, Ararteko erakundeak kartel bat argitaratzen du urtero, laguntza behar duten pertsonen beharrezko sentikortasun handiagoa erraztu eta giza eskubideen defentsan eta babesean aktiboki parte hartzen duen gizartearen aurrera egiteko asmoz. 2005ean goiburua *Mugarik gabeko eskubideak* izan da. Halaber, umeen funtsezko 10 eskubide azpimarratzen dituzten egutegi batzuk argitaratu dira. Material horiek Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan banatu dira.





## JARDUNALDIAK ETA EKITALDIAK

■ Alacanten egindako herri-defendatzaileen XX. Koordinazio Jardunaldietan, defendatzaileek herri administrazioek haurrei eta gazteei eragiten dieten fenomeno eta arazoan aurrean ematen duten erantzuna aztertu zuten. Bereziki ahulak diren biztanle sektore horien beharrianak aztertu ondoren, hizlariek proposamen batzuk agertu zituzten, haurrei eta gazteei eragiten dieten eskubideen berme handiagoa lortzeko. Besteak beste, ondokoa proposatu dute: indarkeria-agerpen

ezberdinen aurrean, koordinazio-planak eta fenomeno sozial horren prebentzio- eta arreta-programak sustatzea; teknologia berrien gaitasunak sustatzea, adin txikikoak teknologia horien erabilera arduratsu eta seguruan heziz; ikastetxeetan bizikidetzaplanei lehenetsua ematea, eta agente sozial guztiek substantzia toxiko eta estupezazienteen kontsumorako erantzun osoa eta koherentea ematea.



(Arartekoa Bernardo del Rosal Valentiako herri-defendatzailearekin)

■ Ararteko erakundeak jardunaldi bat antolatu zuen UPV/EHuren Udako Ikastaroekin batera, *Familia berriak eta berdintasun printzipioak: eztabaida zabala* izenburupean. Herritar guztien berdintasunerako eskubidearen ikuspegitik, adituek azken mende laurdenean gertatutako aldaketa sozial sakonaren ondorioz sortu den errealitate berria aztertu zuten, horretan familia tradizionalaren erudia ez bezalako bizikidetzaproiektuak agertzen direla. Errealitate sozial berri horrek eztabaida bizia eragin du, bertan alde juridikoak, jarrera ideologikoak, moralak edo erlijiozkoak nahasten direla.

■ Iñigo Lamarca Giza Eskubideei buruzko VIII. ikastaroa amaitu zuen UPV/EHUko Donostiako Zuzenbide Fakultatean. Arartekoaren hitzaldiaren gai nagusia giza eskubideen nazioarteko egoera izan zen, eta erakunde eskudunei arren eskatu zien giza eskubideen deklarazio unibertsala behar bezala betetzen dela zaintzeko.

■ *Hiritartasun demokratikoa eta nortasuna* da Arartekoak Demokrazia Parte-hartzailearen Nazioarteko Behatokiaren Donostiako V. Konferentzian emandako hitzaldiaren izenburua.

■ Iñigo Lamarca arartekoak eta Manuel Alcaide Kanarietako herri-defendatzaileak lankidetzaz eta kooperazio-hitzarmena sinatu zuten. Horren bidez, Ararteko erakundeak “Nuestros Derechos/Gure Eskubideak” material didaktikoak erabiltzeko eskubidea lagatzen dio doan Kanarietako herri-defendatzaileari, horiek kopia eta argitaratzeko, Haurren Eskubideei buruzko Batzarrean bildutako eskubideak zabaldu eta sustatzeko jarduerak garatzeko asmoz.



## HERRI-DEFENDATZAILEAK MIGRAZIO-LEKUALDAKETEN KONTROLEAN GIZA ESKUBIDEAK BETETZEAREN ALDE

Pobrezia Ezabatzeko Nazioarteko Eguna zela eta, XX. Koordinazio Jardunaldietan bildutako herri-defendatzaileek migrazio-lekualdaketen kontrolean pobrezia ezabatzeko helburuak zein giza eskubideak betetzearen aldeko deklarazioa jakitera eman zuten, Arartekoak proposatuta. Biztanleria-mugimenduak gizateriaren garai guztietan egon den eta giza bizikidetzari atxikita dagoen fenomeno dira. Bizi-baldintza duinak lortu nahi dituzte, eta sarritan pertsona askok munduan jasaten dituzten indarkeria, jazarpen, bidegabekeria, pobrezia eta gosearen ondorioz sortzen

dira. Alde horretatik, herri-defendatzaileek uste dute estatuek giza eskubideen babesa kontuan hartu behar dutela, egoera irregularrean dauden pertsonak kanporatu eta itzultzeko neurriak aplikatzerakoan, aipatutako neurrien aplikazio automatikoaren ondorioz gerta daitezkeen jazarpen eta tratu iraingarri eta ankerren arriskuak saihestuta. Herri-defendatzaileek Nazio Batuen milurtekoa garatzeko helburuei eusten dietela adierazi zuten, munduko pobrezia larria eta gosea ezabatzeko, eta horrela pertsona asko mugitu beharra saihesteko.

## IKERKETA-BEKAK

■ 2005ean Jesús Septiének *Ikasle etorkinak Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-sisteman sartzea: bereziki ahula den kolektibo baten hezkuntzarako eskubidea* izeneko lana amaitu du. Lan hori Ararteko erakundeak esleitutako ikerketa aplikatuko beka baten emaitza da.

■ Beatriz Sicilia bekadunak *Oinarrizko eskubideak eta Europako Konstituzioari buruzko ikerketa-lana* ere amaitu du, eta 2006an argitaratuko da.



(Herri-defendatzaileak)



## “HAURREN LEGEA”RI BURUZKO ERAKUSKETA IBILTARIA

Save the Children nazioarteko erakundearen eskaintzaz baliatuta, Ararteko erakundeak erakusketa ibiltaria antolatu zuen **Haurren Legea** izenburupean (*Umearen Eskubideei buruzko Hitzarmena*, NBEk 1989an onartutakoa). Erakusketa hori ikusgai egon zen Eibar, Donostia, Gasteiz, Bilbo, Gernika, Durango eta Barakaldon. Jatorrizko 35 argazki eta azalpen-testu batzuk ziren, oinarrian; adin txikikoentzat propio eginda zeuden, eta haien eskubideak eta munduko adin bereko mutil eta neska askoren egoera hobeto ezagutzeko bidea ematen zieten. Erakusketaren egilea Save the Children zen, berak eman baitzituen argazkiak, testuak, orientabideak eta abar. Erakusketaretoak, berriz, Udalek laga zituzten, eta euskarazko testuak Nafarroako Foru Erkidegoko herri-defendatzaileak eman zituen. Arartekoak erakusketaren inguruko material batzuk argitaratu zituen, gure Autonomia Erkidegoko 1.200 ikastetxetara bidali zirenak hobeto aprobeztatzeko.



(M<sup>o</sup> Jesús Aranda Nafarroako arartekoarekin)



(Arartekoa eta Save the Children erakundeko Eva Silván)

## ESKOLA-UMEEN BISITAK

Ohi denez, Ararteko erakundeak Gasteizko Udalaren Hezkuntza Sailak antolatzen duen *Gasteiztxo albistegia* izeneko jarduerari lagundu dio.

Arabako hiriburuko ikastetxe ezberdinetako ikasleek aldian-aldian bisita egiten digute, eta egun batez kazetari bihurtuta, erakundearen lanari

lotutako datuak eta informazioak biltzen dituzte, ondoren irrati edo telebista saioa edo egunkaria egiteko.